

ELA sindikatuaren ekarpenak Trantsizio Energetikoa eta Klima Aldaketaren Legeari

Emergentzia ekologikoa, eta klima aldaketa, inork uka ezin ditzakeen errealitateak dira, eta bere eraginak, beste batzuek baino gehiago pairatzen ditu langile klaseak. Horregatik, ELAk atentzio berezia jartzen dio Lege proposamen honi.

Trantsizio Energetikoa eta Klima Aldaketaren Legeari ondorengo balorazioa eta ekarpenak egiten dizkio ELA Sindikatuak. Hona atalez atal zehaztuak:

Proposamen honetan aipatzen diren artikuluei erreparatu aurretik, legea bera onartzeko ematen diren arrazoiengatik inguruan aipamen pare bat:

- Lehenik, EBk planetaren tenperatura batezbeste 1,5°C baino gehiago ez igotzeko ezartzen dituen emisio murrizketa helburuak aipatzen dira (2030erako %55; 2050erako neutraltasuna). Ezinbesteko oinarri bat dela iruditzen zaigu hau, baina gainontzeko testu osoan ez da murrizketa helbururik kuantifikatzen, eta horrela zaila izango da murrizketa horiek lortzea.
- Bestalde, egiten den beste baieztapenetako bat guztiz okerra da. Ekonomiaren hazkundera eta emisioen jaitsiera bateragarritzat hartzen dira. Aipatzen da 2005arekin alderatuz emisioak %27 gutxitu direla eta BPGa %20 hazi dela. Hau, ekonomiaren hazkundera baliabideen kontsumotik desakoplatuta dagoenaren ideia faltsua dela azpimarratu nahi dugu. Ez dago BPGaren hazkunderik energia eta baliabide naturalik kontsumitu gabe, eta ondorioz emisiorik gabe. Emisio murrizketa hau ez da errealia, hainbat emisio ez dira hemen kuantifikatzen beste herrialde batzuetan gertatzen direlako, baina gure kontsumoaren ondorio dira.
- Eta azkenik, oso kezagarria da energia bektore berriei, batez ere hidrogenoari, trantsizio energetikoan ematen zaion lekua. Oraindik ez dago teknologia hau garatuta, ez dago argi zertarako erabili daitekeen eta zein ondorio izango dituen. Baina badakigu eraginkortasun energetiko oso baxua duela. Hala ere, multinazionalen apustua Eusko Jaurlaritzak bere egiten du eta diru publikoz hornitzen ditu proiektu pribatu hauek. Lege hau pertsonen ongizatea bermatzeko izan beharko litzateke eta ez multinazionalen mesederako.

IV. Kapitulua. Klima Neutraltasuna:

- *15. artikulua (trantsizio energetikoa).* Artikulu honetan hidrogenoa eta energia bektore berriak lehenesten dira, CO₂a jaso eta gordetzea bultzatzen da eta gas naturalaren sareak hidrogenoarentzat eraldatzea onartzen da. Aurreko puntuan esan bezala, hidrogenoaren teknologia ez dago oraindik garatuta, baina dakigunaren arabera ez da trantsizio energetikorako alternatiba egokia, energia bektore bat delako, ez energia iturri bat, eta eraginkortasun energetiko oso baxua duelako. CO₂a gordetzeko teknologia aldiz soluzio faltsu bat da, CO₂a isurtzen jarraitu ahal denaren ideia baitakar berarekin. ELAren proposamena trantsizio energetikoaren 3 ardatz nagusiak bultzatzea da: kontsumo energetikoa murriztea, iturri berriztagarrietan oinarritzea eta sistema energetikoaren elektrifikazioa. Hauek ahalik eta gehien garatu eta lehenetsi behar dira, aipatutako soluzio faltsuen gainetik.

- *17.artikulua (energia berriztagarriak).* Energia hauen garapenean Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialak (LPS) mugarria jarriko duela aipatzen da. Berriztagarrien plangintza justu bat onartu aurretik ordea, proiektu handi hauen moratoria bat beharrezkoa dela aldarrikatzen jarraitzen dugu. Gaur egun planteatzen ari diren proiektu ugariak paisaian eta biodibertsitatean kaltea suposatzen dute, pribatizazioa suposatzen dute, enpresa handien mesederako soilik dira eta ez dira kontsumitzaile txikien mesederako. Erregai alternatibo berriztagarriak sortzea ere aipatzen da, onura baino kalte gehiago eragin dezaketen soluzio faltsuei bidea irekitzen zaie beraz (bioerregaiak, hondakinetatik eratorritako erregaiak...) eta hau onartezina da. ELAren ustez, energia fosilekin funtzionatzen duten energia sorkuntza instalazioek edo hondakinak errez energia sortzen dutenek, ez dute tokirik eredu berri honetan, eta beraz legeak hauen amaiera ekarriko duen neurri sorta zehaztu beharko du. Bestalde, bultzatu behar den eredu energetikoa azpiegitura handietatik urrundu eta diseinu deszentralizatu batean oinarritu behar da. Autokontsumoak gero eta indar handiagoa izan behar du. Beraz, Lege honek joera hauek babestu eta lagundu beharko ditu, lehentasun gisa onartuz.
- *18. artikulua (mugikortasun jasangarria).* Garraio bide eraginkorragoak, eta gutxiago kutsatzen dutenak sustatzea du helburu artikulua, baina mugikortasuna murriztea aipatu gabe. Gaur egun dugun gehiegizko mugikortasuna ezin da energia fosilik gabe mantendu, beraz, tamaina honetako lege batek mugikortasuna murrizteko neurriak hartu behar ditu beregain, eta ez du testu osoan zehar aipamenik egiten. ELAren ustez, mugikortasun jasangarria lortzeko bi puntu garatu behar dira. Batetik, pertsonak eta merkantziak gutxiago mugitu behar dira eta horretarako ezinbestekoak izango dira lurralde antolaketarako irizpideak aldatzea eta ekonomia gure lurraldean birkokatzea. Bestetik, garraioa publikoa, kolektiboa eta elektrikoa izan behar da, baita merkantziarena ere. Tren azpiegiturari dagokionez, bidaiari eta merkantzientzat erabiltzea deskarbonizaziorako alternatiba gisa aurkezten da. ELA guztiz ados dago proposamenarekin, baina gogoratuz AHTa ezin dela merkantzientzat erabili eta bidaiari oso gutxirentzat izango dela erabilgarri. Arrazoi hauengatik, eta askotan aipatu ditugun beste arrazoi askorengatik, AHTa ez da aukera bat, trenbide sare soziala bultzatu behar da. Hiriburuetatik haratago, herriek duten garraio publiko faltari erantzun bat eman behar dio lege honek, baina ez du arazo honen aipamenik ere egiten. Konexio hauek hobetu ezean, ezingo da ibilgailu pribatuaren erabilera murriztu.
- *19. artikulua (ekonomia zirkularra).* Orokorrean aipatzen diren printzipioekin bat dator ELA. Baina "zaborte gietan utzitako hondakin biodegradagarriak gutxitzea" puntua aldatu behar da. Dagoeneko Europar Zuzentzauek hurrengo urteetarako hondakin biodegradagarriak zaborte gietara eramateko debekua eta selektiboki bildu eta tratatzeko agindua ezarria baitute. Beraz lege honek ere debekua eta bilketa eta tratamendu eredu hori betearazi beharko ditu eta testuan puntu hau ezinbestean aldatu beharko da gutxitzea aipatu beharrean debekua ezarriz. Bestalde, hutsune garrantzitsua sumatu dugu: ez da hondakin industrialen aipamen zehatzik egiten, gaur egun hondakinei loturiko arazo handienetako bat

denean. Zaldibarko zabortegiak milaka tona hondakin industrial jaso zituen modu irregularrean eta inongo kontrolik gabe. Orain zabortegi hau itxita egonik, lege honek ez du irtenbiderik planteatzen milaka tona hondakin hauentzat. Ekonomia zirkularra industria sektorean garatzea ezinbestekoa izango da horretarako. Edo Eusko Jaurlaritzaren alternatiba Zaldibarkoa bezalako zabortegi kutsatzaile eta arriskutsuekin jarraitzea izango da? Edo batere jasangarriak ez diren hondakinen tratamenduak bultzatu eta inposatzea goi mailako interes publikoko proiektuen bitartez, Bergaran edo Zumarragan pirolisi plantekin egin nahi den bezala? ELAk ez ditu horrelako proiektuak onartuko.

- *20. artikulua (industria jarduerak).* Hidrogenoaren inguruan mugitzen den industria sektorea bultzatzea du helburuetako bat artikulua honek. Berriro ere aipatzen dugu, benetako energia trantsizio batean hidrogenoak ez duela lekurik izango. Bestalde, industria instalazioei karbono aztarna kalkulatzeko exijitza positibotzat jotzen dugu, baina espero dugu garatu beharreko erregelamendu hori zorrotza izatea eta neurri betearazleak ezartzea. Lege honetan industriak dituen BEG emisioak kontrolatzeko eta murrizteko betebeharrak eta tresnarik ez da aipatzen, emisio gehien duen sektoreetako bat dela onartzen den arren. Lege honen anbizio faltaren erakusgarri da. Benetako trantsiziorako, ezinbestekoa izango da industria sektorea gure lurraldean birkokatzea. Merkantzien gehiegizko mugikortasuna ekarri duten globalizazioak eta internazionalizazioak eragin ekologiko kaltegarriak ditu. Eta hauei aurre egiteko, eta baita etorkizun hurbilean izango diren energia eta material eskasari aurre egiteko, gertuko ekonomia batean oinarritzeak erresilienteago egiten gaitu (pandemiak argi erakutsi digu). Lege honek birkokapen prozesuak babestu behar ditu. Sektore honetan lanean ari diren langileak ere babestu behar ditu. Sindikatu garen heinean, egunero ikusten dugu hainbat sektore industrialek, energia eta materialetan duten gehiegizko kontsumoagatik, menpekotasunagatik edo dituzten gas emisio handiengatik eraldatu egin beharko direla, eta kasu batzuetan desagertu ere egingo dira. Horregatik jasangarriak diren hainbat sektore bultzatu behar dira: energia berriztagarriak, eraikinen birgaitzea, garraio publikoa, elikadura burujabetzari loturiko sektoreak, edo hondakinen kudeaketa iraunkorra esaterako. Industriak trantsizio ekologiko bat izan behar du, baina justua, inor kanpoan utziko ez duena.
- *21. artikulua (merkataritza, turismoa eta beste zerbitzu jarduerak).* ELA guztiz ados dago tokiko merkataritza bultzatzearekin. Baina Eusko Jaurlaritzaren internazionalizazio politikak eta multinazional handien mesederako egiten dituen politikek tokiko merkataritza bultzatzea eslogan hutsa dela pentsarazten digu. Egia bada, benetako neurriak hartu behar dira. Turismoari dagokionez, gertuko turismoa bultzatu behar da, turismoaren mugikortasuna gutxitzeak klima aldaketari eta bertako ekonomiari onura besterik ez dio ekartzen. Baina ez da neurri konkreturik aipatzen.
- *22. artikulua (nekazaritza, abeltzaintza, baso eta arrantza jarduerak).* Nekazaritza sektoreak duen karbonoa gordetzeko ahalmena bultzatzea da lege honen helburuetako bat, eta guztiz ados gaude. Nekazaritza ekologikoa bultzatzeak onura hau dakar eta lege honek nekazaritza ekologikoaren aldeko

apustua aipatzen du, espero dezagun benetako apustua izatea, eta nekazaritza industrial kutsatzaileari ematen zaion laguntza nekazaritza agroekologikora bideratzea. Basogintzari dagokionez, azken urteetako pinu mozketek eta eukaliptoaren izugarritzko zabalpenak eragindako kalteak konpontzeko, lege honek bertako espezie autoktonoen landaketak lehenesteko neurriak hartu behar ditu, karbonoa gordetzeko duten ahalmenagatik, eta klima aldaketaren eragin kaltegarrietara egokitzeko lurraldearen erresilientzia ahalmena asko handitzen dutelako. Bestalde zorrotz arautu behar da ingurune naturaletan azpiegiturak eraikitzea, lur hauek baliabide mugatuak direlako. Lehen sektoreko jarduera jasangarrietara mugatu behar dira.

VI. Kapituluak. Zeharkako tresnak.

- *46. artikulua (trantsizio energetikoa eta klima aldaketaren alorreko zerga sistema).* Gai honetan oso atzean gaude oraindik, eta hurrengo urteetan Europar Batasuneko beste herrialdeen parera iritsi behar gara. Jarduera jasangarriak lagunduz eta kaltegarriak zergapetuz. Fiskalitate berdea errealitatea izan behar da, hobariak bakarrik ematen dituen sistema batekin ez da helburua beteko.

Honenbestez, Trantsizio Energetikorako eta Klima Aldaketarako Legeari ELA Sindikatuak hitzartze honetan eginiko ekarpenak kontuan izatea espero dugu.